



## **2019ko OINARRIAK**

- **Eskaerak egiteko epea: 2019ko abenduaren 31a azken eguna.**

### **1.- NORENTZAT IZANGO DIRA DIRU LAGUNTZAK**

Eskatzaileak, Getxon erroldatutako 17 eta 23 urte bitarteko gazteak izango dira (1996-2002 bitartean jaiotakoak), gidabaimena ateratzeko azterketa euskaraz egin dutenak.

### **2.- BETE BEHARREKO BALDINTZAK**

- 2.1.-** Eskatzaileak gidabaimena ateratzeko azterketa euskaraz egin duela ziurtatu beharko du.
- 2.2.-** *Gidabaimena euskaraz* kanpainan parte hartu duen GETXOKO autoeskolaren batean atera beharko da, gidabaimena.
- 2.3.-** Eskaria aurkeztu orduko, matrikula ordainduta eduki beharko da.
- 2.4.-** Diru-laguntza eskatu ahal izateko azterketa eginda izan behar da. Azterketa teorikoa 2018an edo 2019an egindakoa beharko du izan eta horri dagozkion ordainagiriak 2018koak edo 2019koak beharko dute izan.
- 2.5.-** Diru-laguntza hauek bateragarriak izango dira beste edozein erakunde publikok zein pribatuk ematen dituen diru-laguntzekin, baina diru-laguntza guztien artean ezin izango da jaso matrikularen zenbatekoa baino gehiago.

### **3.- DIRU LAGUNTZA KOPURUAK**

- Azterketa teorikoa euskaraz egiteagatik eskatzaileak **100 euro jasoko ditu**.
- Azterketa teorikoa euskaraz egiteagatik gazteek jasotzen duten diru-laguntza behin bakarrik jaso ahal izango dute.

### **4.- AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK**

- Eskaera orria + kontu korrontearen zenbakia (**IBAN kodeari dagozkion 24 digitu**).
- Zerga betebeharrak egunean izatea:
  - 1.) Ogasunarekin eta Segurantza Sozialarekin. Zerga betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duten Ogasuneko eta Segurantza Sozialeko ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu eskatzaileak. Ziurtagiri biak ERANTZUKIZUNAREN AITORPENA izenekoarekin (ikus eranskina) ordezkatu ahal izango dira.
  - 2.) Getxoko Udalarekin. Getxoko Udalak ofizios egiaztatuko du eskatzaileak zorrik ba ote duen Getxoko Udalarekin. **Eskatzaileak Udalarekin zorren bat badu Udalak interesdunari jakinaraziko eta zor hori ordaintzeko (edota zatikapena eskatzeko) epea emango dio. Egoera epearen barruan zuzenduz gero, Udalak interesdunaren aldeko diru-laguntza ematea erabakiko du. Zuzentzen ez badu, ordea, Udalak ukatu egingo dio diru-laguntza, ez delako onuraduna izateko baldintzetako bat betetzen.**
- FAMILIA OSOAREN ERROLDATZE AGIRIA.
- Gidabaimena ateratzeko, bai teorikoan eta bai praktikoan, eskatzaileak izandako gastuen jatorrizko ordainagiriak (matrikula, azterketa tasak eta abar).
- Azterketa euskaraz egin dela ziurtatzen duen ziurtagiria.

### **OHARRAK**

- ☞ Euskara Zinegotziak, kasu berezietan edo oinarri hauetan jasotzen ez den kasuren batean erabakiak hartzeko ahalmena izango du.
- ☞ Diru-laguntzak, erregistroaren hurrenkerari estuki jarraituz abonatu dira, aurrekontu-partidan kreditu nahikoa dagoen bitartean.
- ☞ Euskara Zerbitzuak edozein momentutan dokumentazio osagarria eskatzeko aukera izango du.